


# KOLON ETA BIZKAITARRAK



Martin Alonso Pinzon, Kolonen laguntzaillea

Sasoi baten euskaldun guztiai esaten jaken “bizkaitarrak”, baiña guk, erri txiki bat izanik, siñistu-eziñekoa da zelako ikutua izan dogun munduko jazokizunik aundienetan: Orain esango dogun lez, Amerikak aurkitzean, edo bertako jakintza indartzen urrengo urteetan (eundak millak dira Ameriketean euskal abizenak) edo munduari lenengo bira emotean, Elkano getaria-rra buru zala: “Tu primus me circumdedisti” izan zan Karlos Erregearen esaldia, lurraren irudiaren gaiñean, Elkanori emona.

Aztertu daigun gaur zelakoak izan ziran Kolonen eta euskaldunen arteko artu-emonak, batez be Amerikak aurkitzeko egin zan lenengo osteran.

1.942n. urteko urrillaren 6n. eguna zan garrantzi aundikoa Kolonentzat ta “Bizkaia aberri zintzoaren semeentzat”

(Kolonen berbak).

Kolonek urten ebanean esan eutsen zenbat legua ibilli bearko eben lurra ikusi-orduko eta bizkaitarrak ondo zenbatzen ebezan legua orreik eta ba-ekien esandako legua guztiak eginda egozala. Gaiñera konturatu ziran Kolon maltzurra zala eta berba egiten eutsen bakoitzean zortzi edo amar legua kentzen ebazala. Bizkaitarrak ba-ekien emondako berbearen leguak eginda egozala.

Kolonen aurka matxinada egitea asmatu eben eta gertu egozan Kolon itxasora botateko be. Ortxe amaituko zan Ameriketen billatze ori.

Eskerrak Martin Alonso Pinzoneri bakeak egiteko bitarteko lez sartu zalako berau eta beronegaz eukazan beste ontzi bietako itxas-gizonak. Ordukoz ez eban aurrera egin matxinada orrek.

Egunak aurrera joiazan eta Pinzon eta onen lagunak be matxinada egiteko gertu agertu ziran illearen 10n. egunean.

Orretan egozala, zorionez, ikusi zan lenengoz lurra sartaldean.

Kolonek gorrotoa artu eutsen euskaldunai gauze bigaitik: bera baiño itxaskari obeak eta berbako gizonak ziralako, bera baiño zintzoagoak.

Ameriketako lurretik urrean egozala, ontziko lemaizaiña zan Txantxu (Juanxu) lekeitiarrak lemearen ardurea sukaldari-lagunari emon eutsan eta onek lan ori txarto egin ebalako “Santa Maria” ontzia ondatu egin zan. Barriro biztu zan Kolonen gorrotoa.

Itxas-ontzi onen ondakiñakaz gertatu eben “Fuerte de Navidad” eritxona eta toki itxi orretan geratu ziran itxaskari batzuk, geienak bizkaitarrak, Kolonek Españara ekarri nai izan ez ebazalako, matxin-zaleak ziralakotan.

“Fuerte de Navidad” orretan egozanak gogor jokatzen asi ziran inditarren aurka. Beste toki baten agertzen dan lez, urre-zaleak ziran eta inditarrak batu, euren ume bat eskuan artu azata-makilleagaz zemaia egiten eutsoela eta urre, zidar eta bitxi guztiak ekarteko agindua emon eutsen inditarrai, umea iltea nai ez baeben. Or agertzen da Españatarren urre-zalekeria. Baiña euskaldunak be

orrelan jokatu ete eben? Iturri bi dira eta ez da gauza ziurra.

Urre, zidar eta bitxi guztiak emon ebezanean, gau baten inguruko inditar guztiak alkartu ziran eta “Fuerte de Navidad” areri eraso egin eutsoen eta bertan aurkitu ebezan espñatar guztiak erail ebezan.

Kolon Espñatik bariro eldu zanean, ez eban iñor be aurkitu bizirik berak an itzi ebazenetatik. Asko poztuko zan bere aurka agertzen ziran bizkaiatarak geiago ikusiko ez ebazalako.

† OLAZARtar Martinek.

